

Gobernuaren 100 egun.


2020ko abenduaren 15a

Euskadi martxan

1. GOBERNU - PROGRAMA
2. SAILBURUAK LEGEBILTZARREAN AGERTZEA
3. 2021eko AURREKONTUAK
4. BERPIZTU PROGRAMA
5. LEHENDAKARI-PARTIDU POLITIKOAK
TOPAKETAK
6. LEGEGINTZA - PROGRAMA + EUSKADI NEXT
7. PLAN ESTRATEGIKOAK
8. SAILEN EGITURA ORGANIKOEN DEKRETUAK
9. CORONAVIRUSAREN AURKAKO BORROKA
10. **ERANSKINA:** MUGARRI ETA JARDUKETA
ESANGURATSUENAK

1. Gobernu Programa

- Gobernu Programa onartzea [Gobernu Kontseiluan, urriaren 13an.](#)
- Lau Ardatz
- 10 Herri Helburu
- 25 Jarduketa Arlo



1. Gobernu Programa

Lau Ardatz

I. Ardatza: Oparotasuna.

Emplegua eta susperraldi ekonomikoa.

II. Ardatza: Pertsonak.

La salud, Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte eta kultura - politikak, bizikidetza eta giza eskubideak

III. Ardatza: Planeta.

Bidezko trantsizio energetiko eta klimatikoa

VI: Ardatza: Autogobernua

Autogobernu handiagoa eta hobe

1. Gobernu Programa

10 Herri Helburu

Langabezia % 10aren azpitik kokatzea

Eskola- uztearen tasa % 7tik azpitik finkatzea eta euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea

Industria eta zerbitzu aurreratuetan BPGren % 40 gainditzea.

Bizi-itxaropena 85 urteraino igotzea

I+G eremuan Europako batez bestekoarekin bateratzea lortzea

Berotegi-efektuko gasen isurketa % 30 murriztea

Euskadi gizarte-desberdintasun gutxieneko Europako 5 herrialdeen artean kokatzea (Gini indizea)

Energia berriztagarrien kuota azken energia azken kontsumoaren % 20 izatea lortzea

Euskadi genero - indizearik altuen duten 6 herrialdeen artean kokatzea

Jaiotza-tasak % 10 handitzea

1. Gobernu Programa

25 Jarduketa Arlo

I. Ardatza: Oparotasuna

1. Lehentasun bat Eplegua
2. Industria eta Naizoartekotzea
3. Ikerketa eta Berrikuntza
4. Elikadura eta Landa - eta Kostalde - Garapena
5. Azpiegitura eta Garraio Jasangarriak
6. Hiri- Agenda, Etxebizitza, Hiri - Berroneratzea
7. Turismo Jasangaria eta Bikaintasunekoa
8. Merkataritza eta Ostalaritza
9. Kontsumitzailea

II. Ardatza: Pertsonak.

10. Hezkuntza -Sistema
11. Osasuna
12. Gizarte Politikak eta Gazteria
13. Genero - Berdintasuna
14. Justizia
15. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak
16. Garapenerako Lankidetzeta
17. Segurtasuna
18. Kultura, Euskera eta Kirola

III. Ardatza: Planeta.

19. Energia - Estrategia berria
20. Klimaren eta Ekonomia Zirkularren Aldeko Ekintza
21. Natura - Ingurunea eta Biodibertsitatea Zaintzea

VI: Ardatza: Autogobernua

22. Euskadi - Basque Country
23. Gizarte- Transizioa eta 2030 Agenda
24. Autogobernua
25. Kudeaketa Publikoa, Gardena eta Arduratsua

2. Sailburuak legebiltzarrean agertzea

Gobernu Programako sailburuak Legebiltzarrean aurkeztea (sailaren lehentasun-ordenaren arabera):

- Lehenengo lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburua
 - [2020ko urriaren 21](#)
- Bigarrenlehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua
 - [2020ko urriaren 14](#)
- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua
 - [2020ko urriaren 27](#)
- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumeneko sailburua
 - [2020ko urriaren 23](#)
- Ekonomia eta Ogasuneko sailburua
 - [2020ko urriaren 21](#)
- Hezkuntzako sailburua
 - [2020ko urriaren 28](#)
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak
 - [2020ko urriaren 21](#)
- Osasuneko sailburua
 - [2020ko azaroaren 2](#)
- Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak
 - [2020ko urriaren 26](#)
- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
 - [2020ko urriaren 28](#)
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburua
 - [2020ko urriaren 28](#)

3. 2021eko Aurrekontuak

2020ko irailaren 30ean egindako Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan, % 3,5eko defizita onartu zen euskal erakundeentzat 2020an (0,9 Foru Aldundientzat) eta % 3,0koa 2021ean (0,8 Foru Aldundientzat). Eusko Jaurlaritzaren zor publikoaren helburuak ere adostu dira: % 16,3 2020rako eta % 16,9 2021erako.

• 2021eko Aurrekontuen Gidalerroak onartzea:

[Gobernu Kontseilua, 2020ko urriaren 6koa](#)



• Gobernu Kontseiluaren 2021eko Aurrekontuen Lege-proiektuaren aurrean abenduaren 15ean onartzea

4. Berpiztu Programa PROGRAMA BERPIZTU + “EUSKADI NEXT”

- **BERPIZTU** programa onartzea: dalerroak onartzea:

[Gobernu Kontseilua, 2020ko azaroaren 3koa](#)

- BERPIZTU www.irekia.euskadi.eus/berpiztu



- Euskadi Next Europako funtsen Proiektua Next Generationn Eu)
- Europako Funtsen Sailarteko Batzordea eratztea Euskadi Next: G.K. 2020ko azaroaren 17a
 - **Euskadi Next Europako funtsak.** 2020ko azaroaren 17a: Euskadiko errekerazio eta erresilientzia Programa (PRRE 2020-2023) – Euskadi Next – Landu, koordinatu, gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko Sail arteko Batzordearen eraketa eta lehen bilera.
 - Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia Legebiltzarrean Euskadi Next Programa aurkezteko (2020ko abenduaren 9a)

(Programaren onarpena 2020ko abenduaren 29an izango da

5. Lehendakari-partidu politikoak topaketak

VOX

2020ko azaroak 3

PP+Cs

2020ko azaroak 3

elkarrekin
PODEMOS

2020ko azaroak 6

eh
bildu

2020ko azaroak 6

PSE-EE
PSOE



2020ko azaroak 9


6. Legegintza - Programa

- Legegintzako Programa Onartzea: [Gobernu Kontseilua, 2020ko azaroak 10](#)

LEGE PROIEKTUAK	Onetsitako data, gutxi gorabehera	Onarpen data	Sail sustatzailea
1. Suteak prebenitzea eta itzaltzea eta salbamendua.	2021eko 1go seihilekoa		1. Lehendakariordetza eta Segurtasuna
2. Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko legea aldatzea.	2021eko 2. seihilekoa		2. Lehendakariordetza eta Lana eta Enplegua
3. Euskal Enplegu Sistema.	2022eko 2. seihilekoa		
4. Gardentasun eta Herritarren Parte Hartzea.	2022eko 2. seihilekoa		
5. Euskal enplegu publikoa.	2021eko 1go seihilekoa		
6. Euskal sektore publikoa.	2020ko 2. seihilekoa		
7. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legea aldatzea	2021eko 1go seihilekoa		Gobernantza publikoa eta Autogobernua
8. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea aldatzea	2021eko 2. seihilekoa		
9. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Kidego eta Eskalak	2020ko 2. seihilekoa	2020/12/01	
10. EAE-ko kasazio-errekurtso zibila	2021eko 1go seihilekoa		
11. Euskadiko natura-ondarea kontserbatzea.	2020ko 2. seihilekoa	2020/10/24	
12. Euskadiko Ingurumen Administrazioa *	2020ko 2. seihilekoa	2020/11/03	Ekonomiaren Garapena, Iraunkortasuna eta Ingurumena.
13. Trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa.	2021eko 2. seihilekoa		
14. Landa-garapenari buruzko Legea aldatzea.	2021eko 2. seihilekoa		
15. Animalien babesa.	2021eko 2. seihilekoa		
16. Ekarpinak.	2021eko 2. seihilekoa		
17. Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautzea.	2021eko 2. seihilekoa		
18. 2023-2026 Euskal Estatistika Plana .	2022eko 1go seihilekoa		Ekonomia eta Ogasuna
19. Finantzen euskal Institutua.	2022eko 1go seihilekoa		
20. EAEko 2005-2018 ekitaldiei dagozkien aurrekontu orokorren likidazioak onartzea	2021eko 1go seihilekoa		
21. Euskal Hezkuntzakoa.	2023ko 2. seihilekoa		Hezkuntza
22. Mugikortasun iraunkorra.	2022ko 2. seihilekoa		Lurralde plangintza, Etxebizitza eta Garraioak
23. Osasun publikoa.	2021eko 2. seihilekoa		Osasuna
24. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak.	2021eko 2. seihilekoa		
25. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna **	2020ko 2. seihilekoa	2020/11/17	
26. Haurren eta nerabeen eskubideak	2021eko 2. seihilekoa		
27. Euskal Gazteria.	2020ko 2. seihilekoa	2020/10/24	
28. Euskadiren memoria historikoa eta demokratikoa.	2021eko 1go seihilekoa		
29. Berdintasun-integrala aniztasunean eta sexu-orientazioagatik diskriminazioaren aurkako borrokan.	2023ko 1go seihilekoa		Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak
30. Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea aldatzea	2021eko 2. seihilekoa		
31. Garapenerako lankidetzak .	2021eko 2. seihilekoa		
32. Kiroleko lanbideetan sartzeko eta jardutea.	2021eko 1go seihilekoa		
33. Euskadiko jarduera fisikoa eta kirola.	2022eko 1go seihilekoa		
34. Dopinaren aurkako Legea eguneratzea.	2021eko 2. seihilekoa		Kultura eta Hizkuntza Politika
35. Euskadiko dokumentu-kudeaketa integrala eta dokumentu-ondarea.	2021eko 1go seihilekoa		
36. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua.	2021eko 2. seihilekoa		Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

7. Plan Estrategikoak

- Plangintza Estrategikoa onartzea: [Gobernu Kontseilua 2020ko abenduak 15](#)



(*) 2020ko azaroaren 3an onartutako BERPIZTU Suspertze Ekonomikorako eta Enplegurako Esparru Programan sartuta

8. Sailen Egitura Organikoari buruzko Dekretuak

SAILA	HASIERA DATA
Lehendakaritza	Hasierako Dekretua: 2020 ko irailaren 28koa
Lehenengo lehendakariordetza eta Segurtasuneko saila	Hasierako Agindua: 2020ko azaroaren 12koa
Bigarren lehendakariordetza eta Lan eta Enpleguko saila	Hasierako Agindua: 2020ko urriaren 21ekoa
Gobernantza Publikoa eta Autogobernuko saila	Hasierako Agindua: 2020ko azaroaren 11koa
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumeneko saila	Hasierako Agindua: : 2020ko abenduaren 1ekoa
Ekonomia eta Ogasun saila	Hasierako Agindua: 2020ko abenduaren 3koa
Hezkuntza saila	
Lurralde Plangintza, etxebizitza eta Garraioetako saila	Hasierako Agindua: 2020ko irailaren 10ekoa
Osasun saila	Hasierako Agindua: 2020ko irailaren 28koa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila	Hasiera Agindua: 2020ko azaroaren 6koa
Kultura eta Hizkuntza Politika saila	Hasiera Agindua: 2020ko azaroaren 24koa
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo saila	Hasiera Agindua: 2020ko azaroaren 24koa

9. Koronavirusaren aurkako borroka



9.1 Bizi Berri. Lehendakariaren Dekretuak. LABI Bilerak

9.2 Neurri osagarriak. Zaharberitze eta Ostalaritza Laguntza

9.3 Osakidetzako Lehen Mailako Arreta indartzea

9. Koronavirusaren aurkako borroka

9.1. Bizi Berri. Lehendakariaren Dekretuak. LABI bilerak

BIZI BERRI PLANA

- https://bideoak2.euskadi.eus/debates/debate_1285/Bizi_Berri_II_eu.pdf

LEHENDAKARIAREN DEKRETUAK:

- [36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, Lehendakariarena](#)
- [38/2020 Dekretua, azaroaren 6koa, Lehendakariarena.](#)
- [39/2020 Dekretua, azaroaren 20koa, Lehendakariarena.](#)
- [42/2020 Dekretua, azaroaren 20koa, Lehendakariarena.](#)
- [44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Lehendakariarena](#)

LABI BILERAK

- [2020ko urriak 2](#)
- [2020ko urriak 17](#)
- [2020ko urriak 22](#)
- [2020ko urriak 26](#)
- [2020ko azaroak 5](#)
- [2020ko azaroak 9](#)
- [2020ko azaroak 19](#)
- [2020ko abenduak 9](#)

9. Koronavirusaren aurkako borroka

9.2. Neurri osagarriak. Zaharberritze eta Ostalaritza Laguntza

- AGINDUA, 2020ko azaroaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2020ko uztailaren 28ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, sukaldaritza- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Turismo Bona» programa arautu eta 2020rako deitzen duena.
- AGINDUA, 2020ko azaroaren 13koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez EAEko ostalaritza-sektorerako laguntzak arautzen baitira eta deialdia egiten baita.

9. Koronavirusaren aurkako borroka

9.3. Osakidetzako Lehen Mailako Arreta indartzea

Osakidetzako mahai sektoriala, ordezkari sindikalekin, lehen mailako arretan indartze-neurriak aurkezteko. 2020ko azaroaren 26a

1. PLANTILLA HANDITZEA LEHEN MAILAKO ARRETAN

Errefortzu horren ondorioz, laguntza-eremu horretan 196 plaza gehiago daude.

2020. urtearen amaierarako 151 egongo dira ezarrita:

- Erizaintzako 79 plaza.
- Familia-medikuntzako 40 plaza.
- 23 administrari laguntzaile
- 4 fisioterapeuta
- Eta 5 lehen mailako arretako farmazialariak

2021ean zehar gainerako plazak (45) ezartzeko prozesua hasiko da, guztira iritsi arte, hau da, 196.

Gainera, Mahai Sektorialean jakinarazi da lekualdatze-lehiaketa irekia eta iraunkorra aktibatu dela.

9. Koronavirusaren aurkako borroka

9.3. Osakidetzako Lehen Mailako Arreta indartzea

2. LEHEN MAILAKO ARRETAKO ADMINISTRAZIO-ARLOETAKO LANGILEEN OSAGARRI EKONOMIKOA

Osakidetzak sindikatuei aurkeztu die, halaber, lehen mailako arretako administrazio-arloetako langileen eta ospitaleko eta ospitalez kanpoko arretako beste laguntza-eremu batzuetan lan egiten duten administrazio-langileen soldatak parekatzeko proposamena. Horrek esan nahi du berariazko osagarri bat aitortzen zaiela lehen mailako arretako administrazio-arloetako langileei, ordainsariaren % 4ko igoeraren baliokidea.

Proposamen horren helburua, gainera, osasun-zentroen egituran profil profesional hori finkatzea litzateke, asistentzia-dinamikaren partaide gisa. Osakidetzak gogorarazi du administrazio-arloek bitartekaritza- eta erraztasun-zeregina dutela zerbitzuaren erabiltzaileentzat, izapide posible guztiak ebazten dituztela eta eskaerak dagokion zerbitzura bideratzen dituztela, eta, horrela, zerbitzu integratu eta jarraitua ahalbidetuko duen erantzun eraginkorra ematen dutela.

9. Koronavirusaren aurkako borroka

9.3. Osakidetzako Lehen Mailako Arreta indartzea

3. Lehen mailako arreta indartzeko beste ekintza batzuk

Mahai Sektorialean, lehen mailako arreta indartzeko beste neurri batzuk ere proposatu ditu Osakidetzak. Horien artean, adibidez:

Antolaketa-neurriak:

- Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren barruan Lehen Mailako Arretarako Zuzendariordetza espezifiko bat sortzea, koordinazioa hobetzeko eta lehen mailako arretari espazio propioa emateko.
- Plan bat aurkeztea lehen mailako arretako kontsultetan zeregin burokratikoak murrizteko, Coviden harreman estu positiboa izateagatik baja eman beharrik ez izateko hartu berri den neurriaren ildotik.

Inbertsioei eta ekipamenduari buruzko neurriak:

- Osasun-zentroetan 14 milioi euroko hobekuntza-lanak egitea urtea amaitu baino lehen.
- Datorren urteko aurrekontu-proiektuan 21 milioi euroko inbertsio berrien aurreikuspena sartzea.

10. Eranskina:

Mugarri eta jarduketa esanguratsuenak



2020ko IRAILA
GOBERNU JARDUERA
66 jarduera

Nº	Jarduera	Data
1.	Iñigo Urkullu Renteriak lehendakari karguaren zina egin zuen Gernikako arbolaren aurrean.	2020/09/05
2.	Osasun Sailak egunero ematen ditu COVID-19ak sortutako pandemiaren eraginari buruzko datu eguneratuak, eta herritarren eskura jartzen du, etengabe, egoera orokorrari eta haren bilakaerari buruzko informazio zehatza.	2020/09/05 2020/11/30ra
3.	Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu ziren , eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren.	2020/09/07
4.	Lehendakariak 1. lehendakariordea, 2. lehendakariordea eta Jaurlaritzako sailburuak izendatu zituen, beren karguez jabetu zitezten, eta Gobernu Kontseiluaren lehenengo bilera egin .	2020/09/08
5.	Prestakuntzaren arloko hitzarmena sinatu zuten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetza -Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.	2020/09/09
6.	Hezkuntzako sailburuak bilera-erronda bat egin zuen hezkuntza-eragileekin – Ikastetxe publikoetako zuzendaritzen ordezkariak, itunpeko hezkuntzako patronalak, sindikatuak eta ikasleen guraso-elkarteen federazioak –, ikasturte-hasierari ekiteko eta ikasturteari nola ekin zaion eta/edo zer zailtasunekin aurkitu diren jakiteko.	2020/09/11
7.	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 400.000 euroko dirulaguntza eman zuen Zerainen (Gipuzkoa) alokairu babesturako 8 etxebizitza eraikitzeko . Etxebizitzak amaituta daude eta, hemendik aurrera, Zeraingo Udalak, etxebizitzaren jabeak, alokairu sozialerako erabiliko ditu datozen 50 urteetan.	2020/09/11
8.	Sektore publikoko erakundea den Miramar Jauregi Partzuergoaren (Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) eta Kursaal Zentroaren arteko hitzarmena sinatu zen. Azken horren bidez, Kursaal Zentroak bere gain hartu zuen Jauregiaren kudeaketa, kultura-jarduerak egiteko eta Donostiaren, Gipuzkoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aberastasuna eta irudia indartuko duten biltzarrak, konbentzioak, ekitaldiak eta bestelako ekitaldiak egiteko, pertsonak erakartzen dituen eta inguruneari balio erantsia ematen dion jarduera sortuz, bai ekonomikoa, bai ezagutzakoa	2020/09/11
9.	Beldur Barik lehiaketaren 11. edizioa jarri zen abian: Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sustatu du, foru-aldundien eta Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen lankidetzarekin. Programa hori 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta gazteen artean errespetua, berdintasuna eta indarkeria sexista prebenitzeko jarrerak sustatzen ditu. 2020ko edizio honetan, 200 ikus-entzunezko lan baino gehiago aurkeztu ziren ; horien gai nagusiak rolak eta estereotipoak, emakumeen ahalduntzea eta gorputzen aniztasuna izan ziren, eta horietako 8k jaso zuten zegokien saria .	2020/09/11 2020/11/18 2020/11/20

10	Lehendakaria , Hezkuntzako sailburuarekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatearen 2020-2021 ikasturteari hasiera emateko ekitaldiaren buru izan zen . Lehendakariak, bere hitzaldian , berretsi egin zuen Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-sistema ekitatibo eta kalitatezkoarekiko duen konpromisoa, bere sail guztiak konprometitzen dituen zeharkako helburua baita.	2020/09/14
11	Eusko Jaurlaritzak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren bitartez , euskal erakundeen baliabideak eskaini zizkien Espainiako gobernuari eta Europar Batasunari , Moriako eremuan (Lesbos, Grezia) dauden errefuxiatuen harreran parte hartu ahal izateko.	2020/09/14
12	Gobernu Kontseiluak, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez , 2020-2021 ikasturterako Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen hezkuntza-itunerako gastuaren aurreikuspena onartu zuen, 623.540.584,77 eurokoa , 7.159 ikasgela ituntzeko; Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 16ko aginduen bidez , a) 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako plangintzaren aldaketa eta 2020-2021 ikasturterako hitzarmena ebatzi ziren , b) Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hezkuntza berezi irekian, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan 2020-2021 ikasturterako itundu beharreko unitateak zehaztea ebatzi zeneta c) honako irakaskuntza hauetarako 2020-2021 ikasturterako itundu beharreko unitateak zehaztea ebatzi zen : Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia (gela egonkorak eta zereginen ikaskuntza), Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Goi Mailako Heziketa Zikloak.	2020/09/15 2020/09/25
13	Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2020ko irailaren 9ko Ebazpenaren bidez, mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko programaren (II. Moves Programa) 2020. urteko oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu ziren. Esleitutako funtsak: 4.640.001 €.	2020/09/16
14	Data horretatik aurrera, Hezkuntza Sailak informazio eguneratua eskaintzen du egunero, irakaskuntzarik ez duten jaiegunetan izan ezik, COVID-19ak hezkuntza-arloan sortutako pandemiaren eraginari buruz.	2020/09/16
15	Lehen lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburua Ertzaintzan ordezkaritza duten lau sindikatuekin (Erne, Esan, Euspel eta ELA) bildu ziren . Helburua bere kezka eta aldarrikapen nagusiak bertatik bertara ezagutzea zen.	2020/09/17
16	Giza eskubideen defendatzaileak babesteko 2021eko programari heltzeko eskabideak aurkezteko epea ireki zen. Ekimen horren helburua da Euskadin aldi baterako harrera egitea giza eskubideen defentsan duten konpromisoagatik eta aktibismoagatik beren jatorrizko herrialdeetan bizitzaren aurkako jazarpena edo mehatxu larria jasaten duten pertsonen. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatzen du programa hau.	2020/09/17
17	Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak euskaltegietan matrikulatzeko 2020-2021 ikasturterako kanpaina berria aurkeztu zuen AEKren euskaltegi batean, 'Euskara ikasteko zure formula-Tu formula para aprender euskera' leloarekin . Halaber, HABEK, Euskadiko euskaltegien sarea koordinatzen duenak, eta euskaltegiek berek, osasun- eta segurtasun-baldintzak zorrotz dituzte, ikasleak seguru senti daitezen ikaskuntza-prozesuan.	2020/09/17

18	ClimAlert proiektu europarrak , zeinean, beste erakunde batzuen artean, Neiker Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari atxikitako sozietate publikoak parte hartzen baitu, plataforma bat garatuko du klimak izan ditzakeen muturreko ondorioez ohartarazteko , hala nola lehorteez, suteez, uholdeez eta lurzoruaren higaduraz. Plataforma horrek eragile publikoek eta pribatuek ura eta lurzoruaren higadura eraginkortasunez kudeatzeko erabakiak hartzen lagunduko du.	2020/09/18
19	Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 68. edizioaren inaugurazio-ekitaldian izan zen. Edizio honetan, euskal presentzia zabala izan da sail gehienetan, Sail Ofizialetik hasi eta Zinemiraraino. Ekitaldia Donostiako Zinemaldia S.A. elkarteak antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarekin.	2020/09/18
20	Osasun Sailak 4.000 lanpostu sortuko ditu Osakidetzan, lau urteko epean .	2020/09/19
21	SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2020ko irailaren 10eko Ebazpenaren bidez (agintaritza horren 2020ko urriaren 20ko Ebazpenaren bidez aldatua) , " Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio 2020 " laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartu, argitaratu eta deitu ziren, teknologia digitalak eta jasangarriak aplikatzeko; esleitutako funtsak: 565.000 € . Egin beharreko izapideak egin ondoren, 48 euskal ETEk jasoko dituzte programa honetan aurreikusitako laguntzak .	2020/09/21
22	Iragarri zen Onkologikoko lehen solairua birmoldatzeko lanak hasiko direla , kanpo-kontsulta berriak eta eguneko ospitalea eraikitzeko.	2020/09/21
23	EHUren Udako Ikastaroen esparruan, Emakundek ikastaro bat antolatu zuen, " Emakumeen eta neskatuen aurkako sexu-indarkeriari buruzko irudikapenak eta diskurtsoak " izenburupean. Horren helburua izan zen gizarteko hainbat eremutan sexu-indarkeriari buruz egiten diren narratibak hausnartzea eta aztertzea, eragile sozializatzaile garrantzitsu eta desberdinen bidez (komunikabideak, publizitatea eta fikzioa, besteak beste).	2020/09/21
24	Bioarabak , Arabako Erakunde Sanitario Integratuan egindako ikerketa publiko guztia biltzen duen Ikerketa Sanitarioko Institutuak, eta UPV/EHUK 14 proiektu garatu zituzten COVID-19arekin lotuta . Vital Fundazioaren laguntzarekin.	2020/09/21
25	Osasun Sailak COVID-19aren Zainketa eta Kontrolerako Protokoloa prestatu zuen zentro soziosanitarioetarako . Protokolo horrek zenbait jarraibide eta gomendio ezartzen ditu COVID-19aren aurrean ahulenak diren kolektiboetako baten osasuna babesteko: Euskadiko adinekoena. Protokoloa Eusko Jaurlaritzak egin zuen, hiru foru-aldundiekin lankidetzan.	2020/09/22
26	Osasuneko sailburuaren 2020ko irailaren 22ko Aginduaren bidez, elkarte eta kooperatibentzako laguntzak arautu eta horietarako deialdia egin zen, 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentariismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko. Esleitutako funtsak: 94.000 euro .	2020/09/22
27	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak , Euskal Irudigileak- Asociación Profesional de Ilustradores de Euskadi elkartearekin batera, Itxitik proiektua sustatu zuen, egungo egoera korapilatsuan ilustrazioaren eremua bultzatzeko ; ilustratzaileek konfinamenduaren inguruko ilustrazioak sortu eta liburu grafiko eleaniztun batean bilduko dituzte (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa).	2020/09/22

28	Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuak kanpaina bat jarri zuen abian, Kontsumoko Arbitrajea sustatzeko . Kanpaina hori hainbat fasetan garatuko da, eta kontsumitzaileei gomendatzen die Euskal Arbitraje Sistemari atxikitako saltokiak hauta ditzatela.	2020/09/22
29	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2020ko irailaren 16ko Aginduaren bidez, mahastia berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako laguntzen finantzaketa-ehunekoa handitu zen , eta aurreikusitako kostuen % 60raino irits daiteke.	2020/09/23
30	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2020ko irailaren 23ko Aginduaren bidez, ardogintzako erakundeen kanpo-sustapenerako laguntzen deialdia egin zen 2020ko ekitaldirako ("Lehiatu Ardoa Programa") . Esleitutako funtsak: 200.000 euro.	2020/09/23
31	Lehendakaria, Hezkuntzako sailburuarekin batera, Deustuko Unibertsitateko 2020-2021 ikasturtearen irekieraren buru izan zen . Bere hitzaldian, hezkuntza presentzialaren alde egin zuen, non pertsonen segurtasuna lehentasuna den; azpimarratu zuen Jaurlaritzaren helburua dela euskal unibertsitate-sistema indartzea, eta Jaurlaritzak unibertsitate-sistema nazioartekotzen laguntzen jarraituko duela, prestakuntza, ikaskuntza, ikerketa eta transferentzia integratuz.	2020/09/23
32	Segurtasun Sailak jakinarazi zuenez, iazko udan Ertzaintzak erregistratutako Euskadin egindako arau-hauste penalak ia % 17 jaitsi ziren 2019ko epe bereko arau-hausteen aldean; sexu-erasoen beherakada % 50ekoa izan zen.	2020/09/24
33	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 15eko Aginduaren bidez, Ikasiker lankidetzaren deialdia egin zen 2020-2021 ikasturterako . Esleitutako funtsak: 300.000 €.	2020/09/24
34	Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak COVID-19a 30 minutuan diagnostikatzeko probak egin zituen , antigeno-testen bidez. Proba horiek birusaren zati proteikoa detektatzen dute, eta PCRek lortutako emaitzak bezain fidagarriak dira.	2020/09/24
35	Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak GasteizOn Pasabidearen irekieran parte hartu zuen. Pasabide horren helburu nagusiak dira Gasteiz modaren munduan erreferente gisa kokatzea, irudi modernoa eta berritzailea zabaltzea eta hiri-merkataritzarako erakusleho pribilegiatua izatea, moda, arte, kultura eta ikuskizuneko pasabide batean integratuz.	2020/09/24
36	Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Euskaraldian izena emateko fasearen hasieraren harira antolatutako ekitaldietan parte hartu zuen , eta nabarmendu zuen bigarren edizio honek entitateei aukera emango diela modu kolektiboan urratsak emateko, euskara erabiltzeko gune egoki bihurtzeko.	2020/09/24
37	Estatu espainiarreko hizkuntza-aniztasuna aurkeztu zen Berlingen, Berlingo Cervantes Institutuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Etxepare Institutuak , Ramon Llull Institutuak eta Consello da la Cultura Galega Institutuak elkarlanean antolatutako ekitaldi batean, Hizkuntzen Europako Egunean .	2020/09/24
38	Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspen ekonomiko berrien berri eman zuen , Eustat/Euskal Estatistika Erakundeak urteko bigarren hiruhilekoari buruz eta ingurune ekonomikoari buruz eman berri zituen datuen berri izan ondoren. Datu horien arabera, 2020an BPGa % 10,1 jaitsiko da, eta 2021ean susperraldi handia izango da, % 8,9koa. Horrek 2018ko BPGren mailara itzultzea ekarriko luke datorren urteko abenduan.	2020/09/25
39	Hezkuntza Sailak 630 langilerekin indartu zuen ikastetxe publikoetako jantokien zerbitzua .	2020/09/25

40	Euskararen jabekuntza, kudeaketa eta hizkuntza-praktikak XXI. mendean master berria jarri zen martxan , UPV/EHUK eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatuta, eta 40 ikaslek hartuko dute parte.	2020/09/25
41	Osasun Sailak berretsi zuen osatu egin dela 'Radar COVID' kutsadura-miaketaren aplikazioaren – Digitalizazio eta Adimen Artifizialerako Estatu Idazkaritzak garatua, Ekonomia Ministerioari atxikia – eta Osakidetza osasun-sistemaren arteko integrazio tekniko, eta dagoeneko operatibo dagoela Euskadin.	2020/09/26
42	Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko, Biocruces Bizkaiko, UPV/EHUko eta Ciberesp ikerketa-zentroko medikuek eta ikertzaileek egindako azterlan batek erakutsi zuen metilprednisolona izeneko glukokortikoidearen erabilerak nabarmen murrizten duela hilkortasuna COVID-19a duten gaixo larrien artean .	2020/09/26
43	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua Espainiako Gobernuko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren ministroarekin bildu zen . Bi administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoan trenbide-azpiegituren arloan gauzatzen ari diren proiektuei buruzko informazioa eta iritzia trukatu zituzten, besteak beste: abiadura handiko trazatuko (Euskal Y-a) lanak, hiriburuetarako sarbideak eta salgaien hegoaldeko trenbide-saihesbidea egitea. Bi arduradunek lan-metodologia bateratua diseinatzeko konpromisoa hartu zuten, beren jarduerak koordinatu ahal izateko.	2020/09/28
44	Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak pertsona gorren nazioarteko astea dela-eta Nazio Batuek bultzatutako erronkan parte hartu zuen , zeinu-hizkuntzan honako mezu hau bidez grabatuz: "Euskadin zeinu-hizkuntza pertsona guztientzat da".	2020/09/28
45	Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren bidez, euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailen ebaluazioa eta ziurtapena arautu ziren , eta helduentzako euskara-ikastaroetako ikasleei laguntzak emateko deialdietarako irizpideak finkatu ziren.	2020/09/28
46	HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Euskal Erakundeak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren erakunde autonomoak, HOBE sistema jarri zuen abian , euskara maila egiaztatzeko azterketak elektronikoki egiteko aukera ematen duena.	2020/09/28
47	Gizarte Elkarrizketako Mahaiko Enplegu Taldea bildu zen, Eusko Jaurlaritzako, Confedebako, CCOOko eta UGTko ordezkariak bertan zirela, eta ekainaren 18an lortutako akordioa luzatzea erabaki zen ; akordio horren bidez, 150 euroko osagarria aitortuko zaie ABEE bat eskuratzeko unean urtean 20.000 euroko edo gutxiagoko kotizazio-oinarria duten langileei. Akordio honek urtarrilaren 31ra arte lan-erregulazioko espediente baten eraginpean dauden langileei eragingo die, ezinbesteko kasu batean zein arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo produktiboengatik.	2020/09/29
48	Lehendakariak, Bigarren lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko sailburuak eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuak Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa aurkeztu zuten. Programa horren helburua da ekonomia suspertzea eta, horren bidez, galdutako enplegu guztia berreskuratzea, aukera berriak sortzen lagunduz. Helburu hauek ditu programa horrek: langabezia % 10etik behera kokatzea; 135.000 enplegu sustatzea; 6.000 enpresa eta mikroenpresa berri sortzen laguntzea; ikerketa eta garapeneko 1.000 proiektu berri sustatzea; 10.000 industria-enpresari laguntzea; 4.000 industria eta zerbitzu aurreraturen balio erantsia handitzea; 100 elikagai-industriaren balio erantsia handitzea, eta merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan balio erantsia 1.400 milioi euroan handitzea . Hazkunde Iraunkorraren esparruan kokatzen den eta hiru trantsizioei erantzuteko konpromisoa hartzen duen programa honek 13.250 milioi euroko aurrekontua izango du 2020-2024 aldirako.	2020/09/29

49	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 22ko Aginduaren bidez, argitara eman zen laguntza-deialdia, 2020an irakastorduetan eman beharreko lraile programako euskara-ikastaroetan parte hartzeko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatuentzat edo gizarte-ekimeneko ikastetxeentzat . Esleitutako funtsak: 524.068,02 euro.	2020/09/29
50	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 29ko bi aginduren bidez, musika-irakaskuntzako udal-titulartasuneko zein titulartasun pribatuko zentroei eusteko dirulaguntzen deialdiak onartu ziren . Guztira esleitutako funtsak: 11.471.019,80 euro (9.453.888,80 euro, udal-titulartasuneko zentroetarako , eta 2.017.131 euro, titulartasun pribatuko zentroetarako)	2020/09/29
51	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 29ko Aginduaren bidez kasle etorkinei zuzendutako kulturartekotasuna sustatzeko eta ikasle sartu berrien hizkuntza indartzeko programak garatzeko dirulaguntzen (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta) deialdia egin zen, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza ematen duten itunpeko ikastetxeentzat. Esleitutako funtsak: 1.698.000 euro.	2020/09/29
52	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 29ko Aginduaren bidez, 2020-2021 ikasturtean gailu digitalak erosteko dirulaguntzen deialdia onartu zen , Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ikasten ari diren ikasleek erabil ditzaten (L4. Material didaktikoak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia). Esleitutako funtsak: 1.528.000 euro.	2020/09/29
53	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko irailaren 22ko Aginduaren bidez, datorren abenduaren 31ra arte luzatu zen Euskadiko alokairu libreko etxebizitzaren parkeko maizterrentzat ezarritako zuzeneko laguntzak eskatzeko epea , baldin eta egoera ekonomiko ahulean badaude COVID-19aren krisiaren ondorioz.	2020/09/29
54	Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak Senatuaren txosteneko akordioan jarraipena eta ebaluazioa egiteko batzorde berezian agerraldia egin zuten. Akordio horiek Estatuko Itunaren esparruan onartutako genero-indarkeriaren aurkako estrategiei buruzkoak dira . Besteak beste, sailburuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen aldaketa iragarri zuen. Aldaketa horren bidez, adostasunez, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herri-politika eta -ituna ahalbidetu nahi dira.	2020/09/29
55	Gobernuak Euskaraldiaren bigarren edizioari atxikitze erabakia hartu zuen . Ekimenaren sustatzaile gisa, hasieratik babestu du. Atxikitze horrek hizkuntza-ohituretan aldaketak sustatzen lagunduko du, eta kideen eta langileen parte-hartzea sustatu eta bultzatuko du. Horretarako, <i>Ariguneak</i> sortuko ditu, euskaraz lasai hitz egiteko inguruak.	2020/09/29

56	<p>HABEko zuzendariaren 2020ko irailaren 16ko Ebazpenaren bidez, euskaltegi pribatuentzako eta autoikaskuntzarako zentro homologatuentzako dirulaguntzen deialdia egin zen 2020/2021 ikasturterako, eta dirulaguntza horiek emateko baldintzak eta prozedura arautu ziren.</p> <p>Esleitutako funtsak: 22.150.000 €. HABEko (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila) zuzendariaren 2020ko azaroaren 24ko Ebazpenaren bidez, handitu egin ziren euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei 2020-2021 ikasturteko euskara-ikastaroetarako ematen zaizkien dirulaguntzen diru-zuzkidurak, 2020ko irailaren 16ko Ebazpenean aurreikusitakoak, eta aldatu egin ziren deialdi horretan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako zenbait alderdi, COVID-19ak pertsonen euskalduntzearen arloan eragindako ondorio kaltegarriak arintzeko. Gehikuntzaren ondorengo funtsak guztira: 22.408.000 euro.</p>	2020/09/29 2020/12/01
57	<p>HABEko zuzendariaren 2020ko irailaren 16ko Ebazpenaren bidez, udalen edo haien mendeko erakundeen euskaltegiei (udal-titulartasuneko euskaltegi publikoak) zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin zen 2020/2021 ikasturterako, eta esleitutako funtsak emateko baldintzak eta prozedura arautu ziren. Esleitutako funtsak 12.810.000 €.</p>	2020/09/29
58	<p>Lehendakariak bide telematikoz parte hartu zuen Nazio Batuen Biodibertsitatearen Goi Bileran, Euskal Herriak planetarekin duen konpromisoa berretsiz eta Euskadik bere ondarea zaintzeko eta biodibertsitatea klima-erronkari egokitzeko erantzukizuna bere gain hartzen duela ziurtatuz.</p>	2020/09/30
59	<p>Lehendakariak, komunikabide bati egindako elkarrizketa baten esparruan, LABI aholku-batzordearen bilera iragarri zuen. Bilera urriaren 2an egin zen, ostiralean. Bertan, Espainiako Gobernuak pandemiaren egungo bilakaerari aurre egiteko har zitzakeen neurrien gaia aztertu zen; izan ere, ulertzen du modu adostuan lor litezkeela Biziberri Planaren emaitza, eta, halaber, udazkena iristearekin batera, Planaren bigarren faseari ekingo zaio. Jaurlaritzak egoera hobetzeko hartutako konpromiso zehatzei dagokienez, nabarmendu behar da 400 profesional berri kontratatu direla lehen mailako arretan eta 4.000 enplegu publiko finkatu direla osasunaren esparruan legegintzaldian zehar. Hezkuntzaren arloan, ordezkio 3.330 irakasle, jantokietarako 600 profesional eta zaintzarako beste 100 kontratatu direla nabarmendu zuen. Gainera, Hezkuntza sailburua une hartan 1.000 irakasle gehiago kontratatuzko negoziatzen ari zela jakinarazi zuen.</p>	2020/09/30
60	<p>Aldez aurreko iragarpena egin eta data berretsi ondoren, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bildu zen, eta zorpetzeko gaitasun propioa aitortu zien foru-aldundiei; hitzartutako defizitaren % 2,6ri foru-aldundientzako berariazko % 0,9 gehitu zitzaion, eta 2020an % 3,5era iritsi da euskal erakundeentzat; 2021erako defizita % 3,0n finkatzea lortu zen (% 2,2 Eusko Jaurlaritzarentzat eta % 0,8 foru-aldundientzat), eta horrek aurrekontuak modu sendoagoan egiteko prozesua hastea ahalbidetu zuen.; Eusko Jaurlaritzaren zor publikoaren helburua 2020rako % 16,3n eta 2021erako % 16,9n ezartzea erabaki zen, hau da, 10.821 milioi euro eta 12.440 milioi euro lortzea. Halaber, finantza-arloko akordioak hartu ziren: a) 2019ko behin betiko zerga berezien ondoriozko kupo likidoak eta finantza-kompentsazioak, eta 2020rako behin-behineko zenbatekoak, eta b) Euskal Autonomia Erkidegoari 2018rako eta 2019rako dagokion behin betiko finantzaketa eta 2020ko behin-behineko finantzaketa.</p>	2020/09/30
61	<p>Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2020ko irailaren 30eko Aginduaren bidez, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea babesteko programaren inbertsiorako laguntzen deialdia egin zen 2021. urterako. Esleitutako funtsak: 7.500.000 €.</p>	2020/09/30

62	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua eta Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria Forondako aireportuan izan ziren, Arabako aerodromoaren eraikin terminalean egiten ari diren eraberritze lanak hasi baitziren. Sailburuak azaldu zuenez, Foronda Estatuko merkantzien garraioaren zutabe nagusietako bat da , eta egingo diren lanek lehiakortasuna indartuko dute.	2020/09/30
63	Konstituzio Auzitegiak epaia eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen aurka aurkeztutako errekursoari dagokionez . Epai judizialak araua konstituzionala dela ebatzi zuen. 300 eskaera baino gehiago jaso dira.	2020/09/30
64	Eusko Jaurlaritzak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko beste erakunde eta entitate batzuekin batera, Bertan proiektuan parte hartuko du. Proiektu horrek landa-eremu eta biztanleriaren zahartze progresiboaren erronkei eta mugaz gaindiko eremuan zerbitzu publikoak eskuratzeko dauden zailtasunei heltzen die .	2020/09/30
65	Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren 2020ko irailaren 30eko Ebazpenaren bidez , René Cassin 2020 sariaren deialdia egin zen. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatzen duen Giza Eskubideen René Cassin Sariak 12.000 euro eta ohorezko sari bat ditu, eta bere helburua da beren ibilbide pertsonal edo profesionalaren bidez gure gizartean giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren testigantza ematen duten pertsona edo kolektiboak publikoki aintzatestea eta saritzea.	2020/09/30
66	Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak foru aldundiekin, udalekin eta Eudelekin koordinatutako bonuak aurkeztu zituen, turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreetarako . Aurkezpenean honako erakunde hauek ordezkariak izan ziren: EUDEL, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Donostiako Udala, Bilboko Udala eta Eusko Ganberak. Bonu guztiek (466.250 bonu ostalaritzan eta turismoan eta 500.000 merkataritzan) 8,7 milioi euro jarriko dituzte merkaturatzen, eta gutxienez 26 milioi euro jarriko dituzte erosketetan. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aginduek formalizatu zituzten. Agindu horien bidez, " Euskadi Bono Merkataritza/Euskadi Bono Denda ", merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko (esleitutako funtsak: 3.700.000 €) eta " Euskadi Turismo Bono ", turismo-, jatetxe- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko (esleitutako funtsak: 2.000.000 €) programak arautu eta deitu ziren. Guztira esleitutako funtsak: 5.700.000 €.	2020/09/30

2020KO URRIA
GOBERNU JARDUERA
73 jarduera /

ZK.	Jarduera	Data
1.	Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak "Euroeskualdeen arteko lankidetzaren estrategikoak" izeneko proiektuen bigarren deialdia egin zuen , "Ezagutzaren ekonomia – Berrikuntza – Enpresen lehiakortasuna" gaiari buruzkoa, 2014-2020 lurralde-estrategian identifikatutako funtsezko sei sektoreetan "euroeskualdeen balio-kateak" sortzearen inguruan. Esleitutako funtsak: 400.000 euro.	2020/10/01
2.	Hezkuntza Sailak informazio eguneratua eskaintzen du egunero, irakaskuntzarik ez duten jaiegunetan izan ezik, COVID-19 pandemiak hezkuntzaren arloan sortutako eraginari buruz.	2020/10/01 2020/10/31
3.	Osasun Sailak egunero ematen ditu Covid-19k sortutako pandemiaren eraginari buruzko datu eguneratuak, eta herritarren eskura jartzen du, etengabe, egoera orokorrari eta haren bilakaerari buruzko informazio zehatza.	2020/10/01 2020/10/31
4.	Lehendakaria buru zela , Euskadiko Babes Zibileko Planaren Aholku Batzordea (LABI) bildu zen (Lehendakaritza, 1. Lehendakariordetza, Segurtasun Saila eta Osasun Saila) . Lehendik zeudenei murrizketa gehigarriak ez aplikatzea erabaki zen, gaur egun COVID-19aren inguruan dagoen egoera epidemiologikoa eta asistentziala ikusita. Birusa geldiarazteko bideak hiru fronte hartzen jarraituko du: 1) detekzio goiztiarra; 2) kasuak eta kontaktuak zaintzea eta 3) banakako eta taldeko prebentzio-neurriak.	2020/10/02
5.	Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez , Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bat egin zuten Lanabes programaren bidez euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan indartzeko .	2020/10/05
6.	Gobernuak 2021eko EAEko Aurrekontu Orokorra egiteko jarraibideak onartu zituen , berreraikuntzarako eta eraldaketa ekonomiko eta sozialerako . Aurrekontuetan ez da murrizketarik egingo politika publikoetan, eta osasunari eta hezkuntzari bultzada handia emango zaie. Pandemiak sortutako krisia aukera bat da eraldaketa energetiko-ekologikoaren, eraldaketa digitalaren eta gure ongizate-estatuaren erresilientzia indartzeko beharren erronkei aurre egiteko, desberdintasunak arintzeko.	2020/10/06
7.	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak Bermeoko portuko lonja handitzea lanak amaitu zituen , 1.014.132 euroko aurrekontuarekin . Handitzeak aurreko eraikina errespetatu du, berria eta aurrekoa arkitektonikoki urtu daitezten. Modulu berriak izotz-fabrika hartuko du, eta lehendik zeudenei lotuta dago komunikazio-ardatz baten bidez, ohiz kanpoko harrapaketen kasuan arraina saltzeko ere erabil dadin.	2020/10/06
8.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Aginduaren bidez , 2021-2023 epealdian Oinarrizko Ikerketako edo Ikerketa Aplikatuak egiteko eta Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egin zen, Unibertsitatea+Enpresa 2021-2022 ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura. Esleitutako funtsak: 970.000 euro.	2020/10/06
9.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Aginduaren bidez , Lanbide Heziketa dualeko proiektuak ikas-ekinezko erregimenean garatzeko dirulaguntzen deialdia egin zen , 2020-2021 ikasturtean, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan. Esleitutako funtsak: 966.000 euro.	2020/10/06
10.	Osasuneko sailburuaren 2020ko irailaren 6ko Aginduaren bidez , BIOEF Berrikuntza eta Ikerketa Sanitariorako Euskal Fundazioaren haurren minbizia ikertzeko proiektuetarako laguntzak arautu eta horietarako deialdia egin zen. EITB maratoin esleitutako eta lortutako funtsak: 1.167.524 euro.	2020/10/06

11.	Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Aginduaren bidez , 2020. urtean osasun-arloko profesionalak prestatzeko beken eta laguntzen deialdia egin eta arautu zen. Esleitutako funtsak: 108.010 euro.	2020/10/06
12.	Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren 2020ko irailaren 25eko Ebazpenaren bidez ezarri zen urriaren 13an hasiko zela gripearen aurkako txertaketa-kanpaina , 2020-2021 denboraldian . Kanpaina horretan, Osakidetzako zerbitzuek deituko dituzte txertoa jaso behar duten pertsonak ; agintaritzaren beraren 2020ko urriaren 26ko Ebazpenaren bidez, kanpainaren estaldura zabaldu egin zen arrisku-taldeetan sartzen ez den biztanleria orokorrera (sei hilabetetik aurrera) , gripearen aurkako txertoa emateko eskaera egitera borondatez joan daitezten. Kanpainaren lehenengo bost asteetan 495.156 pertsonak hartu zuten txertoa, aurreko kanpainan baino % 50 gehiagok.	2020/10/06 2020/11/02 2020/11/23
13.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak hitzarmenak sinatu ditu GAZTAROAN ekin, IRSEARABA eta BERRIZTU elkarteekin, delituak egin dituzten adingabeen egoitza-harrera eta gizarteratzea lortzeko . Emandako funtsak 1.585.224 eurokoak dira.	2020/10/06
14.	Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020 Euskadi Literatura Sariak iragarri zituen. Saridunak : Euskarazko Literatura: Karmele Jaio Eiguren, <i>Aitaren Etxea</i> ; Haur eta Gazte literatura euskaraz: Iñigo Astiz Martinez, <i>Joemak eta Polasak</i> ; Literatur obraren ilustrazioa: Miren Asiain lora, <i>Un millón de ostras en lo alto de la montaña</i> ; Gaztelaniazko literatura: Aixa de la Cruz Regúlez, <i>Cambiar de idea</i> ; Literaturaren itzulpena euskarara: Idoia Santamaria Urkaregi, <i>Aldibereko</i> (Ingeborg Bachmann); Euskarazko saiakera: Uxue Alberdi Estibaritz, <i>Kontrako ezarririk</i> eta Gaztelaniazko saiakera: Borja Barragué Calvo, <i>Larga vida social a la democracia</i> . Sariak ekitaldi publiko batean banatuko dira.	2020/10/20 2020/10/14 2020/11/19
15.	Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen 2020rako lehen dirulaguntzen deialdiaren esparruan ("EUROESKUALDEKO HIRITARTASUNA"), kultura, hezkuntza eta kirolaren arloekin lotutako hemeretzi proiektu hautatu ziren , 55 proposamenen artean, eta Euroeskualdearen laguntza jasoko dute datorren urtean, 500.515 euroko laguntzarekin.	2020/10/08
16.	Lehendakariak Tokiko eta Eskualdeetako Gobernuen Global Taskforce-ren saio batean parte hartu zuen, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa eta Regions 4 Sareko lehenakari gisa, eta estatuz azpiko gobernuek Nazio Batuen aro berrian zuzenean parte hartzea proposatu zuen , erakunde horrek bere etorkizunari buruz egindako inkestari erantzunez, 75. urteurrena dela eta.	2020/10/08
17.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko irailaren 30eko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egin zen 2020-2021 ikasturterako. Esleitutako funtsak: 60.000.000 euro , aurreko urteko deialdian baino 5.000.000 euro gehiago. Berrikuntza gisa, konputatutako errenta osoaren gaineko % 5eko kenkaria aurreikusten zaie COVID-19ak eragindako osasun-krisiak larriki kaltetu dituen egoera ekonomikoa duten familiei.	2020/10/08
18.	TAU PA DA! lelopean egingo den Durangoko Azokaren 55. edizioa aurkeztu zen , Kulturako sailburuordearekin batera. Osasun-arauetara egokituta egingo da. Produktu guztiak denda birtual batean erosi ahal izango dira. Azokaren programazioa <i>streaming</i> bidez jarraitu ahal izango da, baita aurrez aurre ere, edukiera mugatuarekin, Landako Gunean eta Plateruenan egokitutako espazioetan.	2020/10/08
19.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Emakundek eta Hizkuntza eta Genero Batzordeak lau mahai-inguru antolatu zituzten hizkuntzaren eta generoaren arteko harremanari buruz hausnartzeko .	2020/10/09
20.	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitako Etxepare Institutuko zuzendari nagusiaren 2020ko irailaren 1eko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Euskal Etxeei 2020ko urritik 2021eko irailera bitarteko euskara-ikastaroetarako dirulaguntzak emateko deialdia. Esleitutako funtsak: 242.000 euro	2020/10/09
21.	Gobernuak erabaki zuen Legebiltzarrerara bidaltzea XII. Legegintzaldiko Gobernu Programa (2020-2024)	2020/10/13

22.	Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailak proposatuta, 4.453.791 euroko zuzeneko dirulaguntza eman zion Biofisika Bizkaia Fundazioari, azken belaunaldiko bereizmen handiko krio-mikroskopia elektronikoa bat erosi eta instalatzeko, une honetako aurreratuena eta mundu mailako ikerketa zientifikoan finkatuena . Ekipamendu berriak argi eta garbi bultzatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko biozientzietako eta biomedikuntzako bikaintasun-ikerketa, eta eremu horretan lan egiten duten beste ikerketa-talde batzuentzat eskuragarri egongo da. Horrez gain, GIBak edo SARS-CoV-2ak, alzheimerak, parkinsonak edo hainbat minbizi-motak eragindako gaixotasunen aurkako estrategia terapeutiko berrien garapenean ikertzeko aukera emango du.	2020/10/13
23.	Gobernuak , Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez, Eskualdeen Europako Lantaldearen osoko bilkuran parte hartu zuen . Batzorde hori Bruselan egin zen, aurrez aurre (mugatuta) eta telematikoki	2020/10/14
24.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 14ko Aginduaren bidez , Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragileek 2021. urtean ekipamendu zientifiko eskuratzeko laguntzen deialdia egin zen . Esleitutako funtsak: 200.000 euro.	2020/10/14
25.	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 60 zuzkidura-apartamentu eraiki zituen Arangoiti auzoan (Bilbo) , gazteentzako alokairurako. Lanak 3,64 milioi euroko inbertsioa izan zuen. Era berean, 55 etxebizitza sozial eraikiko direla iragarri zuen, aipatutako zuzkidura-bizitokien ondoko lurzatian, eta 6,5 milioi euroko inbertsioa egingo dela.	2020/10/14
26.	Iragarri zen 2020ko urriaren 16an eta 17an egingo direla Eremuak Jardunaldiak Donostiako Tabakalera gunean. Eremuak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren programa ireki bat da, euskal eremuan praktika artistikoen testuingurua ezartzeko eta artistentzako eta sortzaileentzako plataforma bat eskaintzeko, eztabaidarako eta topaketarako giroa bultzatzeko eta egungo errealitate artistikoaren behatoki gisa funtzionatuko duen lan-espazio bat gaitzeko helburuarekin sortua.	2020/10/14
27.	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskararen herria euskal hiztun izenburupean eta euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa ardatz hartuta azaroaren 12an eta 13an Bizkaia Aretoan egingo diren jardunaldiak aurkeztu zituzten.	2020/10/14
28.	Herri Dirubideen Euskal Kontseilua bilera batean bildu zen , eta, besteak beste, honako gai hauek jorratu ziren: aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko erakunde arteko 2020-2021 akordioa (defizit-helburu bateratuak hiru foru-aldundien artean, onartutako ekarpen-koefiziente horizontaletan oinarrituta: 2020: -0,9 —595 M€— eta 2021: -0,8 —588 M€—); zerga itunduen bidezko 2020ko bilketaren itxiera-aurreikuspenak (13.411.590.000 €; -% 13,3); zerga itunduen bidezko 2021eko aurreikuspena (14.250.073.000 €; % 6,3); koefiziente horizontalak eta foru-aldundiek Eusko Jaurlaritzari 2021erako egindako ekarpenak (Araba: % 16,22; Bizkaia: % 50,29 eta Gipuzkoa: % 33,49); 2021eko doikuntza-funts orokorra zehaztea (Eusko Jaurlaritza: % 70,04 —85.909.926 €—; Foru Aldundiak: % 29,96 —36.748.449 €—; guztira: 122.658.375 €); 2021eko Gizarte Zerbitzuen Zorroaren Erakundearteko Funtsa (20.000.000 €).	2020/10/15
29.	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Aginduaren bidez , ZTBP Euskadi 2020 planaren (Bai+D+i programa) «Hiri-habitata» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko 2020ko ekitaldirako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen Esleitutako funtsak: 400.000 euro.	2020/10/15
30.	Iragarri zen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko III. Jardunaldiak egingo direla, "Tokikoa eta globala artikulatzea pedagogia aldetik eraldatzaileak diren ekintzetan aurrera egiteko" izenburupean. Jardunaldi horiek elkarrekin antolatzen dituzte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Hegoa Institutuak. Ekitaldia (H)ABIAN 2030 - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Euskal Estrategia programaren barruan dago, eta 2020ko urriaren 23an eta 24an egingo da, modu birtualean.	2020/10/15

31.	Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendekoak, Europako Funtsetan genero-ikuspegia sartzea bultzatzeko Europako hainbat saio eta mintegitan parte hartu zuen : "Emakumeen eta gizonen berdintasuna kohesio-politikan" mintegia, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiak antolatua, Eskualdeen eta Hirien 18. Europako Astearen esparruan; prestakuntza-saioa Europako Funtsetako Berdintasunari buruzko Lantalde Teknikoan (GTTIFE), institutuak berak antolatua. Bileran parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako Europako Funtzen (EGEF, EGF, LGENF eta EIAF) bitarteko erakundeetako ordezkariak eta dagozkien berdintasun-unitateak.	2020/10/15
32.	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordearen ekimenez antolatutako "Erakunde pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei?" XXV. Jagon Jardunaldia aurkeztu zen . Gogoetarako, esperientzien trukerako eta lankidetzarako foro edo gune bat eskaini nahi du, sentsibiltate eta ikuspegi desberdinak bilduz.	2020/10/15
33.	Aldeko balorazioa eman zizaion Espainiako Gobernuak egin beharreko transferentziak negoziatzeko egutegiari buruz egin duen proposamen berriari . Egutegi horrek esan nahi du aurtengo otsailean itxitaioa eguneratu egin dela, eta egokitu egin behar izan dela, COVID-19aren eta azken hilabeteetako hauteskunde-deialdiek eragindako inguruabarren ondorioz, eta horrek hilabete batzuetako atzerapena ekarriko du eskualdaketak gauzatzeko orduan.	2020/10/15
34.	Lehendakaria buru zela bildu zen Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) zuzendari bakar gisa laguntza ematen dion Aholku Batzordea (Lehendakaritza, 1. Lehendakariordetza eta Segurtasun Saila eta Osasun Saila), zeina koronabirusak sortutako egoerari aurre egiteko onartu baitzen; egiaztatu zen Euskadin Biziberri II. Planean aurreikusitako laugarren agertokian dagoela, eta, horregatik mugikortasuna mugatzera bideratutako neurriak aldatzea erabaki da, pertsonen segurtasuna bermatzeko eta birusaren hedapena geldiarazteko; proposatzen diren neurriak honako hauetara bideratuta daude: gehieneko taldekatzeak gehiago mugatzera, edukiera murriztera, ostalaritza-jardueretako ordutegi-murrizketetara, parke eta lorategiak ixteko ordutegira edo federatu gabeko kirol-lehiaketetako mugetara, besteak beste; neurri horiek Osasuneko sailburuaren agindu batean zehaztuko dira, eta horren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko sala eskudunak hartutako erabakia aintzat hartu ondoren argitaratuko da.	2020/10/17
35.	Eusko Jaurlaritzak Eskualdeen eta Hirien Europako Astea (EWRC2020) parte hartu zuen. Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzak Europako erakundeen babespean antolatu diren eztabaida eta mintegietan parte hartzen duten Euskadiko eragile eta erakundeen parte-hartzea koordinatu zuen. Berrikuntza digitala eta lehiakortasuna, ETEen erresilientzia, eskualde atlantikoaren potentziala, espezializazioa eta lankidetzak berriak kultura- eta sormen-industrietan, lanbide-heziketaren eta berrikuntzaren bikaintasuna, genero-berdintasuna eta kohesio-politika, eta 2030 Agendak eta Garapen Jasangarrirako Helburuek ezarritako erronken eskualde-dimentsioa eta kohesio-politika izan dira, besteak beste, Euskadik Europako bazkideekin batera eztabaidatu dituen gaiak.	2020/10/19
36.	Hezkuntzako sailburuak iragarri zuen bere saila prestatzen ari dela, hasiera batean azaroan, ikastetxeetan "simulazioak" edo "esperientzia pilotuak" abian jartzeko, konfinamendu berri bat gertatuko balitz ere prestatzeko .	2020/10/19
37.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua Migrazioen Estatu Idazkaritzarekin eta Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariarekin bildu zen gazte migratzaileen migrazio-fluxuak eta jarduera-programak aztertzeko , eta honako ideia hauek helarazi zituen: migratzaileen egoera erregularizatzeko beharra "horrela, beren bizi-proiektuak landu eta aurre egin ahal izan dezaten"; errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko politiken transferentzia burutzea, baita nazioarteko babes-eskatzaileena ere; eta Euskadik Estatuko eta Europako erakundeek egin dien SHARE proposamena, migrazio-arloko beharrei erantzun hobea emate aldera.	2020/10/19

38.	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Hezkuntza Saileko Prestakuntza Atalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, LANEKI elkarteak (Lanbide Heziketarako euskarazko baliabideez eta lantokiko eta dualeko prestakuntzaz arduratzen da) eta Emun kooperatibak (euskarazko aholkularia eta gizarte-berrikuntza) esperientzia pilotu bat abiatu zuten elkarrekin, Lanbide Heziketako Lantokiko Prestakuntza duala euskaraz egitea sustatzeko.	2020/10/19
39.	Jaurlaritzak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, 2020rako EAeko Aurrekontu Orokorren Legea aldatzeko lege-proiektu bat onartu zuen , zorpetzeko gaitasuna handitzeko eta ekitaldi honetako kontuak COVID-19 pandemiaren ondorioz sortutako premien ondorioz planteatutako defizit- eta zor-helburu berrietara egokitzeko ; Legebiltzarrak Legea onartu zuen (1/2020 Legea, urriaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzen duena).	2020/10/20
40.	Osalanek eta Lan Ikuskaritzak COVID-19aren hedapena saihesteko eta lan-osasuna eta jarduera ekonomikoa bermatzeko ezarritako protokoloak eta kontrolak arlo publikoaren balioa eta eragile sozioekonomiko guztien eta erakunde guztien arteko lankidetzaren beharra erakutsi duten zereginak izan dira . Neurri horiek bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak aztertzen ditu. Osalanek lehenengo sei hilabeteetan aurkeztutako txostenaren arabera, Institutuak hainbat protokolo egin ditu, eta honako hauetan laburbiltzen dira: 23 fitxa, jarduera berriz hasteko 16 prebentzio-gida, 22 galdera ohikoenei emandako erantzunak, enpresaburuek jarraitu beharreko urratsak, kontingentzia-plana, jardunbide egokiak, osasun-informazioa, araudia. Webgunean kontsulta daitekeen material horrek 112.230 bisita eta 50.235 deskarga izan ditu lehen sei hilabeteetan. Horrek aditzera ematen du Institutuak sortzen duen interesa eta enpresarietarako eta langileentzako duen baliagarritasuna.	2020/10/20
41.	Jaurlaritzak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren proposamenez, urriaren 20ko 237/2020 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2020rako aurrekontuan kredituak sartzeari buruzkoa, lan-arloko legeria betearaztearen arloan Estatutik datozen eginkizun eta/edo zerbitzu berriak bere gain hartzearen ondorioz: kaleratze-espeditenteek eragindako langileentzako ohiko erretiroaren aurreko laguntzak ; guztira, 128.250,00 euro.	2020/10/20
42.	Jaurlaritzak, Ekonomia eta Ogasuneko eta Hezkuntzako sailburuek proposatuta, urriaren 20ko 236/2020 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2020rako aurrekontuan kredituak sartzeari buruzkoa, Estatuak eskola-asegurua osasun-prestazioen kudeaketari atxikitako baliabideak eskualdatuta ; guztira, 87.490,00 euro.	2020/10/20
43.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 20ko Aginduaren bidez, 2020-2021 ikasturterako dirulaguntzen deialdia egin zen, makineria eta/edo ekipamendu aurreratua erosteko edo alokatzeko, 4.0 inguruneen esparruko teknologiak inplementatzeko . Deialdi hau Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei zuzenduta dago. Esleitutako funtsak: 1.000.000 euro.	2020/10/20
44.	Gobernu Kontseiluak, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, Materials Physics Center Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroari (MPC) 180.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea erabaki zuen , teknologia kuantikoen ikerketa indartzeko.	2020/10/20
45.	Jaurlaritzak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Osasuneko sailburuaren proposamenez, urriaren 20ko 235/2020 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2020rako aurrekontuan kredituak sartzeari buruzkoa, Estatuak produktu farmazeutikoei buruz dituen legeriaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak 32.418,00 eurotan eskualdatzearen ondorioz.	2020/10/20
46.	Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako erakundea) zuzendariaren 2020ko urriaren 1eko Ebazpenaren bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerlanen VIII. argitalpen-lehiaketa deitu eta arautu zen.	2020/10/20

47.	Lehendakaria buru zela, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) zuzendari bakar gisa laguntza ematen dion Aholku Batzordea (Lehendakaritza, 1. Lehendakariordetza eta Segurtasun Saila eta Osasun Saila) bildu zen. Kontseilu hori koronabirusak sortutako egoerari aurre egiteko eratu zen; pandemiaren hedapenari aurre egiteko neurriak hartzea onartu zen, Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 22ko Aginduaren bidez gauzatuko direnak (Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalerritan eta oinarritzko osasun-eremutan COVID-19 pandemiaren epidemia-agerraldiari eusteko osasun publikoaren arloko neurri bereziak hartzen dituena), baita Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 22ko Aginduaren bidez ere (Euskal Autonomia Erkidegoan ezohiko prebentzio- neurri espezifikoak hartzen dituena , COVID-19tik eratorritako egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz).	2020/10/22
48.	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak akordio bat iragarri zuen, Nekazaritza Politika Erkidearen (NPB) 2020ko ekitaldiko zuzeneko laguntzei dagozkien ordainketen % 70eko aurrerakina ordaintzeko . Aurrerakin horiek 20 milioi eurora iritsi ahal izango dira, eta 7.000 eskatzailearentzat izango lirakeke gutxi gorabehera: 5.300 oinarritzko ordainketako eta ordainketa berdeko erregimenekoak, eta 1.700 nekazari txikien erregimen sinplifikatukoak.	2020/10/22
49.	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak "Euskararen estrategia digitalerako Europako ikuspegia" jardunaldia antolatu du urriaren 28an. Jardunaldi horretan, nazioarteko adituek euskarak mundu digitalean izan behar duen ibilbideaz hausnartuko dute. Ekitaldia "online" egingo da.	2020/10/22
50.	Lehendakariak formalki eskatu zion Espainiako Gobernuko presidenteari estatu osoan alarma-egoera bat deklaratzeko . "haren agintea eta kudeaketa autonomia-erkidegoetako presidenteen esku gera dadin. Aginte eta kudeaketa hori Estatuarekin koordinatuta garatuko da".	2020/10/23
51.	Lehendakariak , bideokonferentzia bidez, Espainiako Gobernuko presidentek deitutako erkidegoetako presidenteen bileran parte hartu zuen , elkarlaneko gobernantza eta subsidiarioritasun-printzipioa defendatuz eta autonomia-erkidegoek krisi honetatik irteteko parte-hartze aktiboa izan dezatela planteatuz. Bileran Europako Batzordeko presidentea egon zen, "Next Generation" Europako Funtsen irizpide eta ildo nagusiak partekatuz.	2020/10/26
52.	Lehendakaria buru zela, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) zuzendari bakar gisa laguntza ematen dion Aholku Batzordea bildu zen (Lehendakaritza, 1. Lehendakariordetza eta Segurtasun Saila eta Osasun Saila), zeina koronabirusak sortutako egoerari aurre egiteko eratu baitzen; pandemiaren hedapenari aurre egiteko neurriak hartzea onartu zen, eta neurri horiek Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez gauzatuko dira, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurri espezifikoak zehazten diren , alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2 eragindako infekzioen hedapenari eusteko.	2020/10/26
53.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 13ko Aginduaren bidez, enpresan egonaldi-bekak emateko deialdia egin zen, Lantokiko Prestakuntza modulua egiten ari diren lanbide-heziketako ikasleentzat , irailtik martxora bitartean, 2020-2021 ikasturtean. Esleitutako funtsak: 798.875 euro.	2020/10/26
54.	Lehendakariak , telematikoki, "Berrikuntza berdea egituratzeko mugikortasun elektrikoari" buruzko lan-saioa inauguratu zuen . Green Smart Development and Vision (GSDV) nazioarteko konferentziaren esparruan egin zen, eta 70 herrialdetako 3.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Seulgo Unibertsitate Nazionalak (SNU) antolatu zuen topaketa, bere bazkideekin, Klimaren Funts Berdearekin (GCF) eta Nazio Batuen Ingurumenerako Programarekin (PNUMA) lankidetzan, trantsizio berdearen erronkari eta horrek hainbat arlotan dituen inplikazioei buruzko esperientziak eta gogoetak partekatzeko helburuarekin, industria-politikatik mugikortasuneraino, energia berriztagarriak, biodibertsitatea edo nekazaritza jasangarria sustatzetik igaroz. Lehendakariak, bere hitzaldian, Euskadi jarri zueningurumen-politiken eskumenen garapenaren adibidetzat, eta industria-politikaren eta ingurumen-politikaren arteko "konbinazio eta harmoniaren" erreferentzia gisa.	2020/10/27

55.	Gobernuak, Segurtasun Sailak proposatuta, baimena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden alderdi politikoei dirulaguntza bat emateko, beren funtzionamendu arrunteko gastuei aurre egiteko , 2020ko uztailaren 13tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne. Zenbateko osoa: 2.131.673 euro.	2020/10/27
56.	Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Aginduaren bidez , 2020ko ekitaldian Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea arautu eta iragarri zen . Joko eta Ikuskizunen zuzendariak Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularian parte hartzen duten hiru lurraldeetako ludopaten elkarteei helarazi zien haren edukia: ASAJER (Araba), Ekintza Aluviz (Bizkaia) eta Ekintza Bide (Gipuzkoa). Esleitutako funtsak: 200.000 euro.	2020/10/27
57.	Jaurlaritzak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Erresilientzia Berreskuratzeko Programa (PRRE 2020-2023) —Euskadi Next— landu, koordinatu, gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko Sailarteko Batzordea sortzea onartu zuen . Programa horrek Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion ekintzak integratuko ditu, Europar Batasunean aurkeztu beharreko susperraldi eta erresilientzia Planari dagokionez, eta Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Bepiztu Programaren osagarri izango da.	2020/10/27
58.	Hezkuntzako sailburuaren agindu bat onartu dela iragarri zen. Agindu horren bidez, 0 eta 3 urte bitarteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako dirulaguntzen deialdia egin zen da 2020-2021 ikasturterako . Dirulaguntza horiek aipatutako haur-eskolen mantentze-kostuak finantzatzeko emango dira; izan ere, euskal familia askoren bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko funtsezko zerbitzua ematen dute. Esleitutako funtsak: 3.500.000 euro.	2020/10/27
59.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Aginduaren bidez , ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa aplikatzen den zentroez bestelako zentroetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen . Esleitutako funtsak: 175.000 euro.	2020/10/27
60.	Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Aginduaren bidez , ikertzaile doktoreen 2021eko mugikortasun-programarako deialdia egin zen. Esleitutako funtsak: 200.000 euro.	2020/10/27
61.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak iragarri zuen luzatu egingo zirela Berriztu Hezkuntza Elkartearekin eta Euskadiko Birgizareratze Institutuarekin adingabe eta gazte arau-hausleen gizareratzea sustatzeko sinatutako hitzarmenak . Erakunde horiek pertsona horientzako egoitza-harrerako zentroak dituzte Bilbon, Aramaion (Araba), Donostian eta Gasteizen, hurrenez hurren. Esleitutako funtsak: 625.000 euro.	2020/10/27
62.	Onartu egin zen, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, 242/2020 Dekretua, urriaren 27koa, Zallako (Bizkaia) Bolunburuko Inguruko Herri gotortua babes bereziko kultura-ondasun izendatzen duena, eremu arkeologiko kategoriarekin .	2020/10/27
63.	Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, 150.000 euroko dirulaguntza zuzena eman zion Arabako Artium Fundazioari, 2020an bizirik dauden euskal artisten lanak erosteko.	2020/10/27
64.	Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren mendekoak, kanpaina bat hasi zuen kontsumoko arbitraje-zerbitzuari atxikiko zaizkion enpresa berriak erakartzeko .	2020/10/27
65.	Lehendakariak bide telematikoz esku hartu zuen Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren (CRPM) Batzarraren esparruan egindako Arku Atlantikoaren Batzordean. Batzorde horren lehendakaria Euskadi izango da datozen bi urteetan , eta aldi horretako lan-planaren erreferentzia garrantzitsuenak helarazi ditu: Atlantikoko fatxadako eskualdeen ahotsa entzunaraztea Europako eta nazioarteko eszenan, Itsas Estrategia Atlantikotik Makroeskualde Atlantikorako bilakaera eta Arku Atlantikoko Batzordearen lan-mekanismoak indartzea, haren balioa nabarmentzeko	2020/10/28

66.	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia eta Europako Gaietarako zuzendaria Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) osoko bilkuraren hogeita hamazortzigarren edizioan izan ziren. Kontseilu hori Frantziako Akitania Berria eta Okzitania eskualdeek, Andorrako Printzerriak eta Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Euskadiko erkidegoek osatzen dute.	2020/10/28
67.	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2020ko urriaren 28ko Ebazpenaren bidez, Euskadin dauden eraikinetan birgaitze energetikoko jarduketak egiteko laguntza-programaren (HBSP programa) oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu ziren. Esleitutako funtsak: 14.748.000 euro.	2020/10/28
68.	Eustat Euskal Estatistika Erakundearen datuen arabera, berrikuntza handiko Europako herrialdeen artean dago Euskadi : Berrikuntza Adierazleen Europako Panela —European Innovation Scoreboard EIS 2020— 0,502 da EAEn, 2019ko datuen arabera, hots, EB-27ko batez bestekoaren ia berdina, 0,507ko balioarekin.	2020/10/29
69.	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren (CRPM) Batzar Nagusian esku hartu zuen, Euskadi buru duen Arku Atlantikoaren Batzordearen ordezkari gisa , eta eskualde atlantikoek pandemiak eragindako krisiari aurre egiteko duten eginkizuna helarazi zuen.	2020/10/29
70.	Akordio bat sinatu zen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren (presidenteak ordezkatuta — bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua—) eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren artean, Euskal Autonomia Erkidegoan hil edo biziko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren kudeaketa administratiborako 2020ko irailaren 1ean sinatutako hitzarmenean aurreikusitako kudeaketa-ardura luzatzeko . Horren bidez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari agindu zion gutxieneko diru-sarreraren prestazio ez-kontributiboa aitortzeko eta mantentzeko administrazio-prozeduren informazio-, hasiera- eta izapidetze-jarduerak egin ditzala.	2020/10/29
71.	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren mendeko Basque Cybersecurity Centre (BCSC) Zibersegurtasunaren Euskal Zentroa Zibersegurtasunaren Foro Nazionallean (FNCS) sartu zen . Erakunde hori gizarte zibileko kideek, sektore pribatuko ordezkariak, aditu independenteak, elkarteak eta sektorearekin lotutako erakundeak osatzen dute, eta Segurtasun Nazionalaren Kontseiluari ekimenak proposatzea eta sinergia publikoak sortzea du helburu.	2020/10/29
72.	Hezkuntza sailburuak , UPV/EHUko errektoreak, Bordeleko Unibertsitateko presidenteak, DIPCKo zuzendariak, Tecnaliako zuzendariak eta Akitaniako kontseilari ordezkariak parte hartu zuten 2020ko Euskampus-Bordeaux Egunean. Hitzordu horretan, Euskampus-Bordeaux Mugaz Gaindiko Campusak eta haren ezagutza-poloek lortutako azken lorpenak eta aurrerapenak aurkeztu eta partekatzen dira , punta-puntako ikerketan dihardutenak.	2020/10/30
73.	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkartek koordinatutako Estatuko Behatokiak egindako azterlan baten arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa da buru mendekotasunean inbertitzeari dagokionez . Zehazki, EAEn 368 euro bideratzen dira biztanleko eta urteko, eta Estatuko batez bestekoa, aldiz, 183 eurokoa da.	2020/10/30

2020KO AZAROA
GOBERNU JARDUERA
75 jarduera

ZK.	Jarduera	Data
1	Osasun Sailak egunero ematen ditu Covid-19k sortutako pandemiaren eraginari buruzko datu eguneratuak, eta herritarren eskura jartzen du, etengabe, egoera orokorrari eta haren bilakaerari buruzko informazio zehatza.	2020/11/01tik 2020/11/30ra
2	Lehendakariak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren XX. Astea inauguratu du, Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak antolatzen duen Global Innovation Day ekimenaren edizio berri baten esparruan , eta Eusko Jaurlaritzak I+Gko gastua Europako batez bestekoaren gainetik jartzeko eta Euskadi Europako berrikuntza-poloa izan dadin lortzeko duen konpromisoa berretsi du.	2020/11/02
3	Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak bilera-erronda hasi du enpleguaren ardura duten foru-agintariekin eta Eudelekin , langileen prestakuntza errazteko eta lan-merkatuan sar daitezen sustatzeko abian jartzen diren ekintzak koordinatzen saiatzeko. Bizkaiko Enpleguko foru diputatuarekin ; Arabako diputatu nagusiordearekin eta enpleguko foru arduradunarekin ; Eudeleko/Euskadiko Udalen Elkarteko presidentearekin izan dira topaketak	2020/11/02 2020/11/03
4	Jaurlaritzak LABIren Aholku Batzordearen Batzorde Teknikoak (Lehendakaritza, lehendakariordetza, 1. mailako Segurtasun Saila eta Osasun Saila) egindako hamar gomendio helarazi dizkio gizaritari , urriaren 26ko 36/2020 Dekretuan jasotako prebentzio-neurriak, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz onartutakoak, betetzen direla indartzeko eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. Gomendio horiek nahitaez bete beharrekoen osagarri diren neurriak betetzen dituzte.	2020/11/02
5	Hezkuntza Sailak , irakaskuntzarik ez duten jaiegunetan izan ezik, informazio eguneratua eskaintzen du egunero, Covid-19k hezkuntzaren arloan sortutako pandemiaren eraginari buruz.	2020/11/01tik 2020/11/31ra
6	Jaurlaritzak, lehendakariaren proposamenez, Berpiztu programa/Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko sailen arteko esparru-programa onartu du	2020/11/03
7	Jaurlaritzak, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburuaren proposamenez , Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen proiektua onartu du .	2020/11/03
8	Onartu egiten da, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, azaroaren 3ko 248/2020 Dekretua, gehienez ere 1.374.597.001 euroko zor publikoaren jaulkipen bat edo batzuk egitea erabakitzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen Legea aldatzen duen Legearen artikulua bakarrean aurreikusitakoarekin bat etorriz.	2020/11/03
9	Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko azaroaren 3ko Aginduaren bidez, handitu egin ziren agintaritza beraren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan ezarritako atxikipen-epeak eta diru-laguntzen programaren indarraldia . Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, jatetxe- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko "Euskadi Turismo Bono" programa arautu eta deitu zen 2020rako.	2020/11/03

10	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburuak IV. Klima Aldaketari eta Itsasertzari buruzko Mugaz Gaindiko Biltzarrean parte hartzen du ; aurtengo edizioan, klima-larrialdiari aurre egiteko konponbideak ezagutarazten ditu. Bere hitzaldian, estrategia berde berri baten beharra defendatzen du, baina, batez ere, ekonomia modernoan oinarritutako hazkunde-estrategia, baliabideen erabilera efizientea eta lehiakorra. "Eredu lehiakor justua, inor atzean utziko ez duena.	2020/11/04
11	Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak erakunde arteko mahaia deitu du turismo, ostalaritza eta merkataritzako erresistentzia-planeko neurriei ekiteko . Bertan aurreratu duenez, Jaurkitzeak bikoiztu egingo ditu COVID19 ezohiko laguntzak, 15 milioi eurokoak dagoeneko, 30 milioi euroraino, ahalik eta pertsona gehienengana iristeko. Ekarpak berri horrekin, plan horrek 45 milioira igoko ditu aurreikuspen ekonomikoak, turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreei laguntzeko.	2020/11/04
12	Lehendakariaren lehendakariatzapean, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) zuzendari bakarra den Aholku Batzordea (Lehendakariatza, 1. Lehendakariordetza eta Segurtasun Saila eta Osasun Saila) bildu da. Kontseilu hori koronavirusak sortutako egoerari aurre egiteko eratu zen; pandemiaren hedapenari aurre egiteko neurri berriak hartzea onartu da, eta neurri horiek gauzatu dira, 38/2020 Dekretuaren bidez. 38/2020 DEKRETUA, azaroaren 6koa , lehendakariarena, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.	2020/11/05 2020/11/06
13	Lehendakariak Elkarrekin-Podemoseko eta EH-Bilduko ordezkariak hartu ditu, Eusko Legebiltzarrean ordezkariatza duten alderdiekin etengabe harremanetan egoteko esparru egonkor baten barruan.	2020/11/05
14	Spri Taldearen (Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila) mendeko SPRILUR, industria-lurzorua eta enpresa-eremuak kudeatzeko eta sustatzeko sozietate publikoak eta Azpeitiko Udalak hitzarmena sinatu dute Larrin industrialdearen garapen osoa aurreratu eta arintzeko . Indarrean dagoen Antolamendu Plan Partziala egokituko da tamaina handiagoko industria-lurzati urbanizatuak garatzeko, tamaina ertain eta handiko enpresak hartu ahal izateko.	2020/11/05
15	DIPC/Donostia International Physics Centre, Ikerbasque – Hezkuntza Sailak lagundutako erakundeak – Eta UPV/EHUk, Harvardeko Unibertsitatearen parte-hartzearekin, lehenengo ERC Synergy lortu dute Euskadira, ia 10 milioi euro . Synergy-2020 NEXT-BOLD proiektuak neutrinoa bere antipartikula ote den jakin nahi du, unibertsoaren jatorriari buruzko funtsezko galderei erantzuteko. Mundu mailako ikerketarako laguntza entzuten suenetako bat da, abangoardiako ikerketa aitzindariak egitea helburu duena, eta, horretarako, hainbat jakintza-arloren arteko sinergiak sortzen ditu.	2020/11/05
16	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua buru duen Euskadiko Garraio Agintaritzaren Osoko Bilkuraren bileran, garraio publikoaren operadoreek herritarrei ahalik eta zerbitzurik zabalena eskaintzen jarraitzeko konpromisoa adierazi dute , batez ere puntako orduetan, eta sektoreak eskura dituen osasun-berme handienekin. Saio horretan beste behin ere egiaztatu da euskal enpresa operadoreek Covid-19aren pandemian egindako ahalegin garrantzitsuari eutsi diotela.	2020/11/05
17	Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Energiaren Euskal Erakunde zuzendari nagusiaren 2020ko urriaren 28ko Ebazpenaren bidez , Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketarako laguntza-programaren (HBSP programa) oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratzen dira. Esleitutako funtsak: 11.267.472 euro.	2020/11/06

18	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak iragarri du Eusko Jaurlaritzak 2021ean lizitatuko duela Altza eta Galtzaraborda arteko topoaren trenbide-saihesbidea egitea . Horren barruan, lurpetik geltoki berri bat sortuko da Pasaiaiko erdigunean, eta, era berean, Euskal Trenbide Sarea trenbide-kudeatzailea amaitzen ari da zati berriaren eraikuntza-proiektua, 2,0 kilometrokoa.	2020/11/06
